



Kimika Fakultatea EHU

Berdintasun Plana

2026-2028



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

1. Sarrera eta Testuingurua

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta generoa, identitatea, sexu-orientazioa, jatorria, aniztasun funtzionala edo bestelako diskriminazioak, unibertsitateko oinarritzko printzipioa da. Printzipio hori Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Berdintasun Planean jasota dago (<https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/berdintasun-plana-2024-2028>), eta plan horrek unibertsitate inklusibo, ekitatibo eta diskriminaziorik gabeko baterantz aurrera egiteko ildo estrategikoak ezartzen ditu.

Kimika Fakultatea, ezagutza sortzeko, prestakuntza emateko eta transferentzia zientifikoa egiteko zentro bat da eta bere gain hartzen ditu kolektibo guztientzako aukera berdinak bermatuko dituen ingurune bat sustatzeko erantzukizuna: irakasle eta ikertzaileak (IRI), teknikari, kudeaketa eta administrazio eta zerbitzueta langileak (TEKAZEL), prestakuntzan dauden ikertzaileak eta ikasleak (PDI).

Zientzia eta teknologia arloetan historikoki **genero-desorekak** egon dira, bereziki ikerketa karreraren maila gorenenetan eta baita lidergo postuetan ere. Era berean, desberdintasunek iraun dezakete aukerak eskuratzeko orduan, bizitza pertsonala eta lana uztartzeko aukeretan, eta jazarpen edo diskriminazio egoerak prebenitzaerakoan.

Berdintasun Plan hau tresna estrategiko gisa ulertzen da, honako helburu hauekin:

- Balizko desberdintasunak diagnostikatzea eta ikusaraztea.
- Neurri zuzentzaileak ezartzea.
- Erakundearen kultura inklusiboa sustatzea.
- Fakultateko jardura guztietan genero ikuspegia txertatzea.

Aipatzekoa da, halaber, genero-indarkeriaren aurkako EHUren Protokoloan jasotako urratsak eta gomendioak jarraituko direla (<https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/protocolo-de-la-upv-e-hu-contra-las-violencias-de-genero>) beharrezkoa ikusten den kasuetan.

2. Helburuak

2.1 Helburu orokorra

Kimika Fakultatea osatzen duten pertsona guztien arteko berdintasun erreala eta eraginkorra bermatzea, edozein diskriminazio mota ezabatuz eta ingurune inklusibo eta errespetuzkoa sustatuz.

2.2 Helburu espezifikoak

- Kolektibo guztietan genero desorekak identifikatzea eta murriztea.
- Ibilbide akademikoan eta ikerketa karreran berdintasuna sustatzea.
- Erantzunkidetasunean oinarritutako kontziliazioa bultzatzea.
- Jazarpena eta diskriminazioa prebenitzea eta horien aurrean jardutea.
- Genero ikuspegia irakaskuntzan, ikerketan eta kudeaketan txertatzea.

- Unibertsitate-komunitate osoa berdintasunaren inguruan sentibilizatzea eta trebatzea.

3. Jarduera-eremuak, ekintzak eta adierazleak

3.1 Gobernantza eta erakunde-kultura

Ekintzak:

- **Fakultateko Berdintasun Batzordea** berrantolatzea, kolektibo guztien ordezkaritza bermatuz, eta bere funtzionamendu egokia ziurtatzea, une oro batzordeko koordinatzaile baten presentziarekin.
- Berdintasuna ikastegiaren plan estrategikoan eta kalitate planetan txertatzea.
- Egoeraren aldizkako diagnostikoa egitea, generoaren arabera bereizitako datuekin.

Adierazleak:

- Batzordea berrantolatuta eta martxan dagoen ala ez (bai/ez).
- Urteko bilera kopurua.
- Diagnostiko txostena 2-3 urtean behin eguneratuta izatea.

3.2 Sarbidea, sustapena eta garapen profesionala (IRI, TEKAZEL eta PDI)

Ekintzak:

Emakume ikertzaileentzat eta langile gazteentzat mentoring-ekintzak sustatzea. Horretarako, Fakultateko langileen parte-hartzea bultzatuko da EHUK antolatutako ikastaro, mintegi eta hitzaldietan; besteak beste:

- **AKADEME**, irakasle eta ikertzaileei zuzendua, emakumeen lidergo akademikoa sustatzeko.
- **INDARTU**, emakume ikasleei zuzendua, ahalduntzea, lidergoa eta garapen pertsonala sustatzeko.
- **ERALDATZEN**, gizonetako ikasleei zuzendua, maskulinitateei eta erantzunkidetasunari buruz hausnartzeko.

Emakume zientzialarien ikusgarritasuna sustatzea, otsailaren 11ko Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren inguruan egiten diren jardunaldietan. Fakultateak aktiboki parte hartzen du **Emakumeak Zientzian** ekimenak antolatutako jardueretan, zeinen helburu nagusia emakume ikertzaileak erreferente bihurtzea eta haien lana

ikusaraztea baita. Bereziki, Fakultateak **“Zientzialari batekin elkarrizketa”** jarduera antolatzen du.

Adierazleak:

- Batzorde eta epaimahaietako genero-ordezkaritzaren ehunekoa. Emakumeak gutxiengo diren arloetan, laguntza eskatzea eta emakumeak emakume izate hutsagatik ez gainkargatzea.
- Erantzukizun eta kudeaketa postuetan dauden emakumeen ehunekoa.
- Ikerketa-proiektuen ikertzaile nagusi (IP) diren emakumeen ehunekoa.
- Garatutako mentoring-ekimenen kopurua.
- Kategoria profesionaletan genero-banaketaren bilakaera.
- Zientzian emakumeen ikusgarritasuna sustatzeko antolatutako jarduerak.

3.3 Irakaskuntza eta ikasleak

Ekintzak:

- Genero-ikuspegia irakaskuntzako edukietan txertatzea, egokia denean.
- Emakumeen bokazio zientifikoak sustatzea dibulgazio-jardueren bidez, hala nola **Emakumeak Zientzian** ekimenaren bitartez.
- Ikasgelan gerta daitezkeen diskriminazio-egoerak detektatzea eta horien aurrean jardutea.
- Ikasleen giroari buruzko inkestak egitea.

Adierazleak:

- Genero-ikuspegia txertatzen duten irakasgaien kopurua.
- Emakumeen STEAM bokazioak sustatzeko jardueretan izandako parte-hartzea.
- Ikasleen giroari buruzko inkestak emaitzak.

3.4 Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna

Ekintzak:

- EHUn dauden kontziliazio-neurriak zabaltzea.
- Kontziliazioa errazten duten ordutegiak eta antolaketa sustatzea.
- Zaintzaren arloko erantzunkidetasunari buruz sentsibilizatzea.

- Langileen artean inkestak egitea kontziliazioarekiko eta erantzunkidetasunarekiko gogobetetasuna aztertzeke.

Adierazleak:

- Neurrien ezagutza-maila (inkesten bidez).
- Kontziliazio-neurrien erabilera, generoaren arabera bereizita.
- Langileen gogobetetasunaren ebaluazioa.

3.5 Jazarpenaren eta diskriminazioaren prebentzioa**Ekintzak:**

- Jazarpena prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko protokoloak zabaltzea.
- Langileak eta ikasleak berdintasunean eta errespetuan trebatzea.
- Komunikazio kanal konfidentzialak ezartzea.

Adierazleak:

- Egingako prestakuntza ekintzen kopurua.
- Protokoloaren ezagutza maila.
- Antzemandako eta kudeatutako kasuen kopurua, betiere kasuaren edo biktimaren konfidentzialtasuna urratu gabe.

3.6 Komunikazioa eta sentsibilizazioa**Ekintzak:**

- Hizkuntza inklusiboa erabiltzea komunikazio ofizialetan.
- EHUK sustatutako sentsibilizazio jardunaldiak eta kanpainak antolatzen parte hartzea.
- Zientziako emakume erreferenteen zabalkundea egitea.
- Jarduerak antolatzea, hala nola hitzaldiak edo mahai-inguruak, bai azaroaren 25ean (Emakumeen aurkako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna), bai martxoaren 8an (Emakumeen Nazioarteko Eguna).

Adierazleak:

- Komunikazio inklusiboko ekintzen kopurua.
- Antolatutako ekitaldien kopurua.
- Egingako ekintzen inpaktuaren ebaluazioa.

4. Jarraipena eta Ebaluazioa

Planaren jarraipena Fakultateko Berdintasun Batzordearen ardura izango da, Kalitate Batzordearekin eta ikastegiko Dekanotza Taldearekin koordinatuta.

Mekanismoak:

- Adierazleen urteko ebaluazioa.
- Jarraipen-txostena.
- Planaren berrikuspena eta eguneratzea 2-3 urtean behin.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ekintzen betetze-maila.
- Adierazleen bilakaera.
- Unibertsitate-komunitatearen pertzepzioa.

5. Ondorioak

Kimika Fakultateko Berdintasun Plana funtsezko tresna bat da unibertsitate-ingurune ekitatiboago, inklusiboago eta anitzago baterantz aurrera egiteko. Planaren arrakasta kolektibo guztien inplikazioaren eta berdintasuna ikastegiaren jarduera guztietan zeharka txertatzearen menpe egongo da.